

MERKATARITZA SUSPERTZEKO “AZPEITIA ZAINDU” BONO KANPAINA

2022ko maiatza

Bertan Azpeitiko Merkatarien Elkartek, Azpeitiko Udalaren laguntzarekin, merkataritza suspertzeko, “**AZPEITIA ZAINDU**” bono kanpaina jarri nahi du martxan.

Kanpaina honen bidez, udalerriko saltoki txikiei lagundu nahi zaie erosketa-bonoen bidez kontsumoa sustatuz, konkretuki:

- Herriko merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza sektoreetan erosketak sustatzea.
- Kontsumitzaileek, udalerriko bizilagunek zein Azpeitian kontsumitzen duten bisitariak, hobaria eskuratu ahal izatea Azpeitiko saltokietan erosteagatik.

-OINARRIAK-

EKINTZAREN HELBURUA

Azpeitiko merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza sektoreetan kontsumoa sustatzea.

EKINTZAREN EZAUGARRI OROKORRAK

1. 50€ko balioa duten 1.835 bono jaulkiko dira.

- Bono bakoitza erosteko kostua 35€koa izango da eta, hauek, ekimen honi atxikitako Azpeitiko establezimenduetan kontsumitzeko 50€ko balioa izango dute.
- Ezingo dira pertsonako bi bono baino gehiago erosi. Erosketa fisikoki egiten bada (Azoka Plazan), norberaren izenean eta gehienez beste pertsona baten izenean erosi ahal izango dira. Aldiz, erosketa online egiten bada (<https://www.azpeitinbertan.eus/azpeitiazaindu>), erosle bakoitzak bere izenean soilik erosi ahal izango ditu.

2. Bono bakoitza 10€ko 5 balek osatuko dute, eta baleak banaka erabili ahal izango dira. 10€ko bale bakoitza behin bakarrik erabili beharko da, ekimenari atxikitako establezimenduetako batean.

- Erosketaren zenbatekoa balearen zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko.
- Bonoak edo baleak ezin dira eskudirutan trukatu, eta ez da inola ere itzuliko balio horren zenbatekoa.
- Gehienez 4 bono (20 bale=200 euro) pilatu ahal izango dira erosketa berean.



- Saltoki berak ezingo ditu 5.000,00€ baino gehiago jaso bonotan. Behin zifra horretara iritsita, une horretatik aurrera saltoki horretan bonoak erabili nahi dituzten bezeroei jakinarazi beharko dio ezin dizkiela bonoak onartu.

3. Bonoak ezin direnez eskudirutan trukatu eta bonoaren zenbatekoa ez denez inola ere itzuliko, produktua itzultzen bada, establezimenduak erosketaren zenbateko osoko bono propio bat jaulki beharko du.

4. Interesatuak 2022ko maiatzaren 16tik aurrera erosi ahal izango dituzte bonoak, jaulkiko diren bonoak agortu arte, aurrez aurre edo online:

Aurrez aurre, honako egun eta ordutegian:

Helbidea: Azpeitiko Plaza nagusia, 11 (Azoka Plaza)

Ordutegia: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara.

Online, webgune honetan:

<https://www.azpeitinbertan.eus/azpeitiazaindu>

Ordutegia: 9:00etatik aurrera.

5. Bonoak erosten dituzten pertsonak 2022ko maiatzaren 16tik 2022ko uztailearen 30era bitartean erabili ahal izango dituzte, bi datak barne. Epe hori igarotakoan, baliorik gabe geratuko dira bonoak.

6. Kanpaina hau aurrera eraman ahal izateko, gutxieneko establezimendu-kopuru batek parte hartu beharko du.

a) ESTABLEZIMENDUEKIN LOTUTAKO INFORMAZIOA

1. EKIMENERA BATZEA

Edozein pertsona fisiko edo juridikok parte hartu ahal izango du kanpaina honetan, baldin eta bere enpresa-jarduera merkataritza, zerbitzu edo ostalaritza sektorearen barruan kokatzen bada, kalean establezimendu irekia badu ekonomia-jardueren gaineko zergan dagokion altarekin, eta honako ezaugarriak betetzen baditu:

- Establezimendua Azpeitian izatea.

- Enpresak gehienez besteren konturako 10 langileko lan-taldea izatea kontratatuta.

Zalantzazko kasuetan eta egoera berezietan, Bertan Azpeitiko Merkatarien Elkarteak erabaki ahal izango du saltokiaren parte-hartze eskaera onartu edo ez.

2. ESKAERA ETA PARTE-HARTZE PROZESUA

i) Eskaera

Parte hartu nahi duten establezimenduek izena eman beharko dute, honako agiri hauek aurkeztuta:

- Parte hartzeko eskaera-orria sinatuta.
- EJZko alden eta bajen ziurtagiri eguneratua.
- Beste agiri batzuk: parte-hartze eskaera hobeto baloratu ahal izateko, erakundeak eskubidea izango du beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentu eskatzeko.

ii) Atxikitako establezimenduaren betebeharrak.

- Atxikitako enpresek kanpainako informazio-materialak jasotzeko, kokatzeko eta, hala badagokio, zabaltzeko konpromisoa hartzen dute, eta establezimenduan ondo ikusteko moduan jarriko dituzte. Informazio-materiala honako hau izango da:

- o Kanpainako parte-hartzaile moduan identifikatzen dituen kartela.
- o Kanpainaren ezaugarriei buruzko informazio esku-orria.

- Aldi berean, atxikitako enpresetako arduradunek konpromisoa hartzen dute establezimenduan erabilitako bonoak (edo baleak) egiazkoak direla egiaztatzeko, eta zalantzarik izanez gero, txartelaren erabiltzaileari izena, NANA eta harremanetarako telefona eskatzeko.

- Kontsumitzaileak bonoa erabili ondoren, enpresa arduratuko da txartela Azpeitiko Rural Kutxaren sukurtsalean entregatzeaz (Foru Ibilbidea, 10), 2022ko irailaren 15a baino lehen, banku-transferentzia bidez kobratzeko.

- Saltoki berak, gehienez 5.000,00€ko balioa arte onartu ahal izango ditu bonoak. Behin zifra horretara iritsita, une horretatik aurrera saltoki horretan bonoak erabili nahi dituzten bezeroei jakinarazi beharko dio ezin dizkiela bonoak onartu.

iii) Kanpainarako eskabideen informazioa eta aurkezpena:

Kanpainari buruzko informazio guztia eta kanpainarekin bat egiteko eskabide-orriak interesdunen eskura egongo dira bulego honetan:

Tokia: Bertan-en, Azpeitiko Merkatrien Elkartearen, bulegoan.

Helbidea: Azpeitiko Plaza nagusia, 11 (Azoka Plaza). 1.solairua, 7.bulegoa.

Ordutegia: 9:00 - 13:00 eta 15:00 - 17:00.

Telefona: 943025673

Email: bertan.azpeitia@gmail.com

Parte-hartze eskaerak aurkezteko epea 2022ko maiatzaren 13an, eguerdiko 12:00tan, amaituko da.

3. ATXIKITAKO SALTOKIEK BONOAK TRUKATZEKO PROZEDURA

- Jasotako bono originala edo originalak gorde
- Honako bulegoan aurkeztu:

Rural Kutxa-ren Azpeitiko Bulegoa:
Orduategia: astelehenetik ostiralera, 9:00 - 12:00.
Helbidea: Foru Ibilbidea, 10.
Telefonoa: 943811195

Aurkeztutako bonoei dagokien zenbatekoa, gehienez 5.000,00€ arte, establezimenduari abonatu zaio bonoak entregatzeko unean horretarako emandako kontu-zenbakira transferentzia eginez.

b) KONTSUMITZAILEEKIN LOTUTAKO INFORMAZIOA

1. OINARRIAK ONARTZEA

Bonoak eskuratzeko dokumentu honetan jasotzen diren oinarriak onartzea dakar.

2. BONOAK ESKURATZEA ETA ERABILTZEA

i) Bonoak eskuratzeko eskubideak eta mugak.

Kontutan izan beharrekoak:

- Bonoak 16 urtetik gorako edonork erosi ahal izango ditu, Azpeitian bizi zein ez. Aldi berean, pertsona berak gehienez ere bi bono erosi ahal izango ditu.
- Bono bakoitza erosteko kostua 35€koa izango da eta, hauek, ekimen honi atxikitako Azpeitiko establezimenduetan kontsumitzeko 50€ko balioa izango dute.
- Ezingo dira pertsonako bi bono baino gehiago erosi. Erosketa fisikoki egiten bada (Azoka Plazan), norberaren izenean eta gehienez beste pertsona baten izenean erosi ahal izango dira. Aldiz, erosketa online egiten bada (<https://www.azpeitinbertan.eus/azpeitiazaindu>), erosle bakoitzak bere izenean soilik erosi ahal izango ditu.

ii) Eskuratzeko moduak

Interesatuak 2022ko maiatzaren 16etik aurrera erosi ahal izango dituzte bonoak, jaulkiko diren bonoak agortu arte, aurrez aurre edo online:

Aurrez aurre, honako helbide eta orduategian:

Helbidea: Azpeitiko Plaza nagusia, 11 (Azoka Plaza).
Orduategia: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara.



Aurrez aurre erositako bonoak erosleari momentuan entregatuko zaizkio, erosketa egiten den unean.

Online, webgune honetan:

<https://www.azpeitinbertan.eus/azpeitiazaindu>

Orduategia: 9:00etatik aurrera

On-line erositako bonoak erosleari etxean entregatuko zaizkio, baldin aurrez ez baditu Bertan Merkatari Elkartearen bulegotik jasotzen. Horretarako, erosleak bere datuak eman beharko ditu online erosketa formalizatzean, eta entrega-helbidea zehaztu beharko du.

Bonoak erosteko unean bertan ordaindu behar dira. Banku-txartela erabiliko da lehenetsuneko ordainketa-sistema gisa.

iii) Bonoen erabilera

Bonoak erosten dituzten pertsonak 2022ko maiatzaren 16tik eta 2022ko uztailaren 30ra bitartean erabili ahal izango dituzte, bi datak barne. Epe hori igarotakoan, baliorik gabe geratuko dira bonoak.

Bonoak kanpainari atxikitako saltokietan erabili ahal izango dira. Saltoki horiek behar bezala identifikatzeko, atxikitako saltokien zerrenda osoa emango da, bonoak ematearekin batera. Era berean, saltokien zerrenda hori ikusgai egongo da www.azpeitinbertan.eus/azpeitiazaindu webgunean.

Erabiltzaileak bono (edo bale) originalak aurkeztu eta entregatu beharko ditu horiek erabiliko dituen establezimenduan. Merkatariak erabiltzaileari izen-abizenak, identifikazioa eta harremanetarako telefono-zenbakia eskatu ahal izango dizkio, bonoaren erabileraren inguruan sor daitezkeen nahasketak argitzeko.

Erosketaren zenbatekoa balearen zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Bonoak edo baleak ezin dira eskudirutan trukatu, eta ez da inola ere itzuliko balio horren zenbatekoa. Gehienez 4 bono (20 bale=200 euro) pilatu ahal izango dira erosketa berean.

Posible da bezeroak saltokian bonoak trukatzerako orduan saltokiak adieraztea ezin dizkiola bonoak onartu, saltoki bakoitzarentzat ezarri den gehienezko zenbatekoa osatuta duelako. Kasu horretan, bezeroak beste saltoki batean erabili beharko ditu bonoak.

iv) Erabiltzailearen erantzukizuna

Bonoak modu arduratsuan erosi eta erabili beharko dira, eta kontuan hartu beharko da bonorik edo ordaindutako zenbatekorik ez dela itzuliko berauek galdu, ahaztu edo ezjakintasunagatik sortu daitezkeen bestelako egoerengatik.